

EUKADI BURU BATZARRAREN ADIERAZPENA ESPAINIAKO GOBERNUARI EUROPAKO BATASUNeko KONTSEILUAREN PRESIDENTETZA BERE GAIN HARTZEA DAGOKIONEAN

2023ko uztailaren 1etik aurrera, Espainiako Gobernuak sei hilabetez hartuko du bere gain Europako Batasuneko Kontseiluaren Presidentetza. Horrela emango zaio hasiera Presidentetzako Hirukotearen hurrengo aldiari. Belgikak eta Hungariak sei hilean behingo presidentziak hartuko dituzte 2024an, eta talde hori osatzen dute, Lisboako Tratatuan xedatutakoaren arabera. Presidentetzako hirukote hori ari da prestatzen Kontseiluaren datozen hemezortzi hilabeteetarako lan-egitasmoa. Programa horrek epe ertainerako helburuak jasotzen ditu eta lan-programa komun bat planteatzen du.

Espainiari dagokion aldetik eta Presidentetzaren ibilbidea hasi aurretik, EAJ-PNVk bere ikuspegia eta ekarpenak partekatu nahi ditu euskal, espainiar eta Europako gizarte osoarekin. Bere ehun urteko historian zehar, alderdi honek hainbat adibideren bidez egiazta ditzake bere bokazio europazale argia eta europar proiektuarekiko konpromiso saihestezina, bere sorreratik egiten baitu hori. EAJ-PNV beti identifikatu izan da Europako jatorrizko balioekin, Giza Eskubideen, demokraziaren, ekonomia- eta gizarte-kohesioaren eta kultura-aniztasunaren defentsan, Europako Herrien onarpenaren, errespetuaren eta atxikimendu askearen printzipioetan oinarrituta. Alderdi politiko gutxik errebindika dezakete hori antzeko ibilbide batetik eta zorrotasun-, koherentzia- eta erabakitasmun-maila berarekin.

Gure sorreratik daukagun bokazio horretatik, adierazten dugu europar proiektua une delikatu dagoela, baina aldi berean erabakigarria, XXI. mendean mundu mailako abangoardia izaten jarraituko badu. Aurrean ditugun erronkek politika ausartak, eraldatzaileak eta sakonera sozialekoak eskatzen dituzte. Europako proiektuaren integrazioan eta baterako gobernantzan sakontzen duten erabakiak, herritarrengandik hurbilen dauden botere politikoekin gero eta espazio gehiago eta partekatuak sortuz.

Testuinguru horretan, Gorte Nagusietarako hauteskundeak uztailaren 23rako deitu izana albiste txarra da Europan, eta horrek eragina izan dezake Europak heldu behar dien erronka ugariari behar bezala aurre egiteko behar den bultzada politikoan.

TESTUINGURUA.KRISI GLOBALA ETA MEHATXUAK EUROPAKO BIZIMODUARENTZAT

2023ko bigarren seihileko hau giro nahasi eta korapilatsu batean aurkezten zaigu. Errusiak legearen kontra eginez Ukraina inbaditu zuen duela urtebete luze, eta giza sufrimendu eta suntsipen handia eragin du dagoeneko Europar Batasunera sartzeko hautagai bihurtu den estatu batean.

Zalantzarik gabe, Ukrainako herria da inbasio horren ondorioak gehien pairatzen ari dena, gizateriaren aurkako delituak egin izanaren zantzu handiak baitaude, eta delitu horiek Nazioarteko Zigor Auzitegiak epaitu beharko ditu. Ukraina egoera honetan galera handiak sufritzen ari da giza bizitzetan eta oinarrizko azpiegituretan, eta horrek gure elkartasuna merezi du Europako Batasun osoaren aldetik. Beraz, erabat justifikatuta daude Europarengandik jasotzen ari den babes eta laguntza, euskal administrazioetatik jasotzen duena barne.

Inbasio horrek kanpora begira ekarri dituen ondorioak antzeman dira energia-krisian, hornidura-kateen hausturan eta mundu mailako zatiketan, hazkunde globalari eragiten dioten aldaketa geostrategiko sakonak eman baitira. Askotariko erpin planteatzen dituen krisi honek herritarrei zuzenean eragiten dien inflazio handia ekarri du, eta hainbat motatako populismoak erabiltzen ari dira gaur egun, erakunde demokratikoei eraso egiteko eta zilegitasuna kentzeko, jendearen artean beldurra zabaltzeko eta Europako proiektua gutxieteko. Era berean, tirabira eta aldaketa geopolitiko gero eta handiagoak bizitzen ari gara, eskualde-eredu berri itxiagoekin, lurralde desberdinen arteko merkataritza-gatazkak eta industriaren norabide aldaketak ekar ditzaketenak.

Egoera honetan, Europako Batasunak erabaki politiko ausartak hartu beharko ditu gure Batasunari eusteko oparotasunaren, justizia sozialaren, berrikuntza politikoaren eta produkzioaren transformazioaren erreferente den aldetik, arestian adierazitako erronkei erantzuna emanaz. Helburua da Europako Batasunari ematea jasangarritasunean, lehiakortasunean, ezagutzan eta erakundearen eta hiritargoaren arteko konexio sendo batean oinarritutako subiranotasun estrategikoa, irekitasuna, gardentasuna eta parte hartzea abiapuntu harturik.

KRISIA ETA AUKERA. BATASUNAREN SUBIRANOTASUN ESTRATEGIKO BATERANTZ

Aurrez aurre planteatzen zaigun lehen errealitatea da egoera honetan ez dela antzematen inolako aterabide errazik, ezta epe laburrekorik ere, 2022ko otsailaren 24an ireki zen krisitik onik irten gaitezen, egun hartan hasi baitzuen Errusiak bere buruaz jabe den herrialde baten inbasioa, nazioarteko legeriak jasotzen duenaren kontra eginez. Inguruabar horrek derrigortzen gaitu, Errusiak legez kontra egin duen honek eragin dituen turbulentziak, gure oraingo eta etorkizuneko panoraman jasotzera.

Burujabetza estrategikoa.

Testuinguru horretan, Batasunak batasuna erakutsi du krisi global honetan, pandemiaren aurkako borrokan egin zuen bezala, eta garrantzi handiko eta aurrekaririk gabeko hainbat erabaki hartu ditu gure historian zehar. Itxaropenerako arrazoiak dira, besteak beste, Putinen erregimenaren aurkako zigor sorta berria, energia-merkatuaren joko-arauak aldatu izana, Berreskuratze eta Erresilientzia Plana berriro bideratu izana, eraldatzeko

bokazioa azkartzeko eta sakontzeko, edo egoera berriari aurre egiteko Batasunaren arau ugari aldatu izana. Esandako horiek guztiek aukera ematen digute krisi hau, dramatzat hartzeaz gain, Europako Subiranotasun Estrategikoan eta Kanpo Politika eta Segurtasun Politika Bateratuan (PESC) modu irmoan aurrera egiteko aukera gisa hautemateko.

Horrek guztiak bere isla izan du, eta hala izaten jarraitu behar du, hainbat sektoretako jardunean, bereziki industriari eta haren garapen digitalari, energiari (dimentsio berde eta berriztagarriarekin), klima-politikei eta gure lehengai kritikoei dagokienez. Mundu mailako errealitate geopolitiko berri bat eratzten ari da, non Europak bere autonomiarekin jardun nahi duen eta benetako eragile global bihurtu behar duen, AEBen eta Txinaren arteko mundu-polarizazio gero eta handiagoaren barruan. Egoera honek Batasun erresilienteagoa eta subiranoagoa eskatzen du, pixkanaka munduan eragiteko bokazio argiarekin, Atlantikoaren beste aldeko aliatuekin partekatzen ditugun balio eta printzipioei jarraiki.

Batasunak 2012an jaso zuen Nobel sariarekin bat etorriz, Europak bake-eragile izan behar du mundu mailan, bere lurraldetik hasita, Ukrainako gerraren amaiera ekarriko duen eragile aktibo eta erabakigarri bilakatuz. Batasunak, eraso izan denari babes eman, arauetan oinarritutako nazioarteko ordena lortzen lagundu behar du, eta Ukrainako herriari itxaropena eta ongizatea eskainiko dion egonkortasun-, adiskidetze- eta berreraikitze-aldi bat irekitzea bultzatu eta horretan inplikatu behar du, Europaren babespean.

Batasunaren zabalkuntza eta Latinoamerikarantz, Kariberantz eta Hegoalderantz zabaltzea.

Ukrainaren inbasioak beldurra zabaltu eta nazioarteko taula aldatu du, mundua osatzen duten eskualde-aliantez egituretan dituen ondorioekin.

Munduko geopolitika berriak, ezegonkortasuna ezaugarri duena, eskualde-aliantez barne-indartzea bultzatzen du, eta Europar Batasunean babes bilatzea erabakitzen duten nazioen zabaltze-prozesua ere bizkortzen du.

Europatik, Europar Batasuna herrialde balkanikoetara, Ukrainara eta Moldaviara zabaltzeko prozesua bultzatu behar da, eta, era berean, Georgiari Batasunean sartzeko hautagai ofizial izaera eman behar zaio, Europako Batzordearen irizpenei jarraiki.

Espaniaren hurrengo presidentetzak arreta berezia eman behar die nazioartean Latinoamerikari eta Kariberi, Mercosurrekin egindako akordioa burutuz eta Txile eta Mexikorekin egindako merkataritza-akordioak berrituz, bai eta Europako Batasunak hegoalderantz dituen herrialdeekikoa ere.

Aldi berean, mundu-mailan eta Nazio Batuen Erakundearekin bat eginik, XXI. mendeko errealitateari hobeto egokitzen zaion sistema berritzea ahalbidetuko duen nazioarteko

giroa sortzen lagundu beharko litzateke. Era berean, Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda eta horren 17 helburuak ezartzen laguntzea.

Kogobernantza.

Bestetik, Europaren etorkizunari buruzko Konferentzia (CoFoUE), non EAJ-PNVk parte hartze zuzena izan baitzuen, prozesu positiboa izan zen, bereziki herritarren parte hartzerako eta gizarte zibilarekiko harremanetarako dinamiketan. Amaitzeko, ondorio batzuk atera zituen, nagusiki partekatzen dugun Europako proiektuaren etorkizuna ziurtatzeko. Hala ere, ondorio horien artean Argitasun Zuzentarau baten falta sumatzen jarraitzen dugu, Europar Batasuneko estatuen barruan nortasun nazionalerako gatazkak konpontzeko.

Konferentzia ezin da amaitu gabe geratu. Europako Parlamentuaren 2022ko maiatzaren 4ko Ebazpenak berariaz ezartzen duen bezala, Biltzarraren Osoko Bilkurak 2022ko apirilaren 30ean onartutako ondorioetan proposatutako neurrien jarraipena eta inplementazioa egin behar da. Horien artean, herritarrekiko solaskidetza estruktural bihurtzea.

Europako Parlamentuaren Ebazpenak berak dagoeneko aurreratzen du Tratatuak Konbentzio baten bidez aldatzeko beharra, Batasunaren erakunde-arkitektura sinplifikatzeko eta gardentasun handiagoa emateko erabakiak hartzeko eta kontuak emateko prozesuetan. Horrez gain, nahitaezkoa da Batasunaren eskumenei buruz hausnartzea, erroka globalei aurre egiteko ekintza-gaitasuna hobetzea eta hiriak, eskualdeak eta Euzkadi bezalako errealitate nazionalak behar bezala integratuko dituen gobernantza-eredu batean sakontzea. Batasunaren funtzionamenduari eraginkortasuna eta ezagutza emateko hurbiltasunaren aldeko apustu hori izan da Konferentziaren beste ondorio nabarmenetako bat, behingoz aintzat hartu behar dena.

2024an Europako Parlamenturako egingo diren hauteskundeak.

Azkenik, askoz ere eremu politiko hertsia, 2024ko Europako Parlamenturako hauteskundeetatik gertu gaude. Aurreko hauteskundeek hasiera batean Erresuma Batuko kideekin Europako Parlamentu bat eratu zuten, oraindik ez baitzen egin Erresuma Batua Europako Batasunetik erretiratzeko akordioa, 2020ko otsailaren 1ean indarrean sartu zena.

Testuinguru horretan, eta Batasunaren proiektu politikoa benetan indartzeko asmo argiarekin, zentzuzkoa dirudi Europako gure sistema politikoaren bi neurri garrantzitsutan aurrera egitea 2024ra begira: batetik, nazioz gaindiko "edo mugaz haraindiko" zerrendak deritzenak sustatzea, nahiz eta partzialki izan hala erabakitzen duten lurraldeetan; bestetik, Europako Kontseiluaren akordio politikoan aurrera egitea, 'Spitzenkandidaten'

izeneko figura kontuan hartzeko, herritarrek zuzenean Europako Batzordearen etorkizuneko Lehendakaritza aukeratu ahal izan dezaten.

2024ko Europako hauteskundeei begira, funtsezkoa da iritzi publikoaren borroka irabaztea, demokrazia zaintzera eta Europako proiektua sendotzera begira, herritarrak babesteko eta haien gizarte-ongizatea bermatzeko biderik onena baita. Ezinbestekoa da indar europazaleak gailentzea alderdi euroeszeptikoak eta antieuroparrak muturretan biltzen dituen polarizaziorako joeraren gainetik.

Azkenik, barne-mailan, Europako hauteskundeetarako lurralde-barrutiak abiarazi behar dira, Estatu osatzen duten nazionalitateen eta Europako Batasunaren ezaugarri den aniztasunaren onarpen konstituzionalarekin koherenteak direnak. Horregatik, bermatu egin behar da horiek Europako parlamentu berrian ordezkatuta egotea.

SEIHILERAKO PLANTEATZEN DITUGUN PROPOSAMENAK. BATASUNA INDARTZEA

2022ko abenduan sinatu zen Europako Batasunak 2023 eta 2024rako izango dituen, legegintza-lehentasunei buruzko adierazpen bateratua, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak adostua. Hiru erakundeek konpromisoa hartu zuten Europako Itun Berdearen arau-garapenari lehentasuna emateko, aro digitalera egokitutako Europa lortzeko, pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia sortzeko eta Europako bizimodua sustatzeko, demokrazia indartuz eta gure sorrerako balioak defendatuz. Horiek dira Europa indartsuago bat munduan kokatzeko oinarriak.

Oinarri horretatik, EAJ-PNVk uste du Espainiari dagokion Presidentziaren seihilekoan beharrezkoa dela txosten politiko eta legegileak bultzatzea, ondorengo arlo hauetan aurrerapen esanguratsuak lortzea xede:

Eraldaketaren gako nagusiak: Pertsonak eta Batasunaren erresilientzia soziala.

- ✓ Europako bizimodua sustatzea, demokrazia eta kanpoko interesen balio europarrak babestuz eta zuzenbide-estatu Batasunaren barruan eta kanpoan defendatuz. Ustelkeriaren aurkako neurri sorta bat ezartzeak, Batasunean askatasuna, aniztasuna eta dibertsitatea defendatzeak eta gardentasunez jokatzek konfiantza sortzen du eta demokrazia hobetzen du.
- ✓ Gaitasunen Europako Urtea amaitzen laguntzea, gazteak eta pertsona kalteberak eta etorkinak ardatz hartuta. Gaitasunen, prestakuntzaren eta produkzio-sektorearen arteko harremana estutzea, eta lanbide-heziketa eta goi-mailako prestakuntza lan-merkatuko aldagaketetara garaiz egokitzea ahalbidetuko duten prestakuntza-eredu iragarleak garatzea.

- ✓ Ingurumena eta Giza Eskubideak babesteko, iraunkortasunaren arloan enpresek izan beharreko arretari buruzko zuzentarauaren proposamenaren negoziazioak amaitzea, Europako Batasunaren barruan zein kanpoan. Bortxazko lanetik datozen produktuak inportatzeko debekuari buruzko erregelamenduaren negoziazioak amaitzea.
- ✓ Langileek enpresen kapitalean, enpresa inklusiboaren erduetan eta gizarte-ekonomiaren sustapenean parte hartzeko erduetan aurrera egitea, kontzeptu horietarako definizio europarra mugatuz eta errespetuan, aintzatespenean eta parte-hartzean oinarritutako lan-harremanen eraldaketa bultzatuz.
- ✓ Europa Soziala Europako Batasunaren funtsezko zutabetzat hartzea, Europako Batasunaren lurralde osoan gutxieneko prestazio-maila bat bermatuz, belaunaldien arteko elkartasuna eta Portoko Goi Bilera Sozialaren Ondorioak eta haren hogeit hamar printzipioak aplikatzeko eta garatzeko konpromisoa indartuz.
- ✓ Transformaziorako eta erresilientziarako plan komunitarioetan berdintasuna txertatzea, justizia- eta demokrazia-iturri gisa ez ezik, lehiakortasun-faktore gisa ere. Kristalezko sabaiek, kontziliazio-arazoez eta desberdintasuna eragiten duten aurreiritziak eta emakumeen aurkako indarkeriak eragotzi egiten dute eskura dagoen talentu guztia ezagutza oinarri duen eraldaketa-prozesu horretan integratzea. Benetako berdintasun-politikak lehia-abantaila dira estrategia horretan aurrera egiten ez duten lehiakide globalekiko.
- ✓ Gazteak lan-merkatuan integratzeari ikuspegi beretik heldzea, haien ezagutzari balioa emanez eta belaunaldien arteko bidezko erreleboa bultzatuz. Gizarte-ekonomian eta haren balioetan sakontzea, talentua eta jarduera lurraldean finkatzeko mekanismo gisa eta ekintzaitzaren input etikoekiko bereziki sentibera den adin-tarterako erakarpen-faktore gisa.
- ✓ Osasunaren Europako Batasuna sustatzea, herritarren osasuna hobeto babesteko. Europako Batasuna prestatzea, pandemiak hobeto prebenitzeko eta eraginkortasunez borrokatzeko. Horretarako, aurrera egin behar da datu sanitarioen ekosistema baten garapenean, koordinazio estatistikoan eta tresna elkarreragileetan. Gainera, Covid-19aren aurkako txertoetarako erabiltzen den lankidetzaren sistema hainbat esparrutan aplikatzen duten Europako estrategiak abiaraztea, hala nola minbiziaren edo gaixotasun arraroen eremuan, eta Europako osasun-sistemen erresilientzia hobetzea.

Energiaren eta produkzioaren transformazio berdea bultzatzeko arauak.

Europako Itun Berdeak defendatzen duen ekoizpen-sektorearen neutraltasun klimatikoa lortzeko ezinbesteko arau-oinarria den '55 Helburua' izeneko kontzeptuari buruzko negoziazioak amaitu ondoren, ezinbestekoa da tartean dauden eragileak prozesu horretan integratzea. Teknologiatik, partaidetzatik eta pragmatismotik abiatuta, Klima Aldaketari aurre egiten benetan lagunduko duten arau fidagarriak bermatzeko legeak egitea da trantsizio ekologikoan aurrera egiteko biderik zuzenena, bai eta Europa berdeagoa eraikitzeke ere. Horrela, hutsegiteak saihestuko ditugu, 2035ean errekuntza-ibilgailuak saltzeko debekua bezalakoa, ondoren zuzendu behar izan zena. Ondorioz, Espainiari dagokion Presidentziari egokituko zaio poluzioa eta emisioak kontrolatzeko pakete honetatik eratorritako arauak aplikatzen hasia. Ondorengoak izango dira ardatzak:

- ✓ Trantsizio bidezkoa bideratzea, larrialdi klimatikoaren aurkako prebentzio-ekintzak, iraunkortasun-legeak, sektore produktiboaren eta bizitegi-eraikinen eraginkortasun energetikoa bultzatzeko programak eta ekonomia zirkularrean egindako aurrerapenak ahalbidetzea.
- ✓ REpowerEU ekimenean jasotzen diren helburuak garatzea, Europako Batasunak Errusiatik datorren erregai fosilarekiko duen mendekotasuna azkar murrizteko. Trantsizio ekologikoa bizkortzeko eta energia-sistema erresilienteagoa eta Energiaren Europar Batasuna sortzeko, indarrak batu behar dira herritarrei eta enpresei energia eskuragarriagoa, seguruagoa eta iraunkorragoa eskaintzeko.
- ✓ Argindarraren Europako merkatuaren erreformari buruzko negoziazioa burutzea, merkatu bakarrerako bidean aurrera egiteko, prezioak jaisteko eta lurrunkortasuna murrizteko, eta, aldi berean, deskarbonizazio-prozesuan aurrera egiteko. Prozesuaren gakoak dira horniduraren segurtasuna bermatzea eta kostuak modu bidezkoagoan banatzea ekoizleen eta kontsumitzaileen artean.
- ✓ Klima-aldaketaren ondorioz gero eta ohikoagoak diren inpaktu handiko muturreko fenomeno meteorologikoak eta klimatikoak antzemateko, ezagutzeko, prebenitzeko eta modu koordinatuan kudeatzeko tresna komunak diseinatzeko jardunean aurrera egitea. Arlo horretan, uraren kudeaketa eta bere kontsumoa arrazionalizatzeko Europako arauen aplikazioa ere erabakigarriak dira lehortearen aurrean eta lurraldeen ahalmen hidrikoak gehiegi ustiatzeko politiken aurrean.
- ✓ EBk premiazko neurriak hartu behar ditu energia garbien teknologia fabrikatzeko gaitasuna handitzeko, segurtasun energetikoari dagokionez, Txinak eta Asia-Pazifikoko eskualdeak teknologia horietan duten hornidura-monopolioaren aurrean eta IRAK (Inflation Reduction Act) Amerikako Estatu Batuetan ematen dituen energia garbiko teknologia fabrikatzeko pizgarrien aurrean.

- ✓ Toki- eta eskualde-agintariak erabaki-prozesuaren goranzko fasean eta politika horien guztien betearazpenean parte hartu behar dute, eta eskualde-aliantzak sortzea sustatu behar dute, hidrogenoaren euskal korridorea eragin duena kasu. Gainera, kontsumo-ohitura berrien sustapenean, eraikinen energia-eraginkortasuneko politiketan, autokontsumorako komunitateen sustapenean, sorkuntza deszentralizatuan eta mugikortasun-sistema adimendun eta integratu baten garapenean inplikatu behar da, neutraltasun teknologikoa abiapuntu harturik.

Mugikortasuna

- ✓ Estatu kideei beren konpromiso guztiak bete ditzatela exijitzea, Europa barruko garraio-sareen oinarritzko sarea (TEN-T) epe barruan amaitzeko. Espainiari dagokion presidentetzan, Iberiar Penintsulako herrialde nagusia den aldetik, bere presidentetza aldi berean bermatu behar du penintsularen eta kontinentearen arteko mugaz gaindiko eremuetako lotura epe barruan gauzatuko dela, tarte horiek lehentasunezko zat jotzen dituzten Erkidegoko irizpideei jarraituz.
- ✓ Sei hileko honetan TEN-Tak berrikusteko negoziazioa amaitzea, Green Dealera eta Ukrainako inbasioak agerian utzi dituen mugikortasun-premia berrietara egokitzeko. Berrikuspen horrek Europako defentsaren premien aldagaia jaso behar du, eta errepideen, trenbidearen, aireko eta itsasoko garraioaren eta barne-nabigazioaren gainean proiektatu behar da, salgaien garraioa trenbidez egitea sustatuz eta premia bereziak dituzten eremuen konexio handiagoak sustatuz, hala nola eskualde ultraperiferikoak.
- ✓ Deskarbonizazio-prozesu honetan, funtsezkoa da karbono-emisio txikiko garraio bide kolektibo eta jasangarrien erabilera sustatzea, ibilbide laburreko joan-etorrietarako hegazkinen bidaia mugatuz.

Gobernantza ekonomikoa.

- ✓ Europako gobernantza ekonomiko berria bultzatzea, gainbegiratze fiskaleko arkitektura gardenago, sinpleago eta integratuago baten bidez. Ogasunen arteko lehiarekin amaitu behar da, eta susperraldi ekonomiko ekitatiboaren alde egin behar da, hazkunde ekonomikoa babestuz eta enplegua sortzen eta finantza publiko iraunkorrak eta erresilienteak lortzen lagundu behar da.
- ✓ Europa mailan koherentzia fiskal handiagoa sustatzea, dumping fiskala eta estatu kideetako ogasunen arteko lehia saihesteko. Europako Batasunaren eta bere merkataritza-bazkideen arteko koordinazioa bultzatzea (OCDE/G20).

- ✓ Banku Batasunean eta Europa mailan Kapitalen Merkatuetan aurrera egitea, haien zatiketa gaituz eta lehentasunezko agendan Gordailuak Bermatzeko Sistema baterako ibilbide-orrria onartzeko negoziazioak berreskuratuz, ziurgabetasun-egoeren aurrean egonkortasuna eta konfiantza bermatuz. Arlo honetan, Euroaren funtzioa ere indartu behar da, bai eta bere bertsio digitala ere.
- ✓ Oinarrizko eskubideei, askatasunei eta Zuzenbide Estatuaren kalitateari buruzko Europako estandarrak betetzeari lotutako baldintzazkotasunaren aldagaia Europako sei hilekoan sartzeari. Klima- eta ingurumen-estandarrei dagokienez, bide beretik aurrera egitea.

Eraldaketa digitala.

- ✓ Aro digital berriari heltzeko orduan beharrezko jo daitezkeen neurriak garatzea, Europaren lehiakortasuna bultzatuz. Funtsezkoa da European behar besteko baldintzak sortzea (prestakuntza, azpiegiturak eta ekosistemak), sektore digitalean ematen den atzerapena arintzeko eta mundu osoan erreferentzia diren enpresa teknologikoak erakartzeko, hirugarren herrialdeekin txipen eta beste material aurreratu batzuen mendekotasuna gaituzeko. Material kritikoen eta erdieroaleen inguruko programei eman behar zaie lehentasuna.
- ✓ Zibersegurtasunaren arloko azpiegiturak eta prestakuntza lehentasunezko sektore bihurtzea. Herritarren prestakuntza zabaltzea eta hobetzea, tresna eta prozesu digitalak erabiltzeko trebetasunei dagokienez.
- ✓ Datuen babesari buruzko Europako araudiaren aplikazioan eta kontrolean sakontzea eta gure garapen industrial, energetiko, finantzario eta garraioko garapenarekin koherentea izango den datu-ekosistema europarra garatzea. Neurri hori ezinbestekoa da mugikortasun-sistema integratu eta adimendun bat sortzeko eta Osasunaren European aurrera egiteko.

Migrazioa, asiloa eta demografiaren krisia.

- ✓ Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Itun bat lortzea. Itun horrek tokiko eta eskualdeko agintariak integratu beharko ditu erabaki- eta betearazpen-prozesuetan, horiek gobernatzeko baitute integrazioa eta harrera gertatzen den mailan, eta horiek bultzatzen dituzten oinarrizko zerbitzu publikoek ematen baitituzte. Itunaren oinarriek gure Batasunaren oinarri diren elkartasunaren eta aniztasunaren balioei erantzun behar diete, eta ez diote kalterik egin behar Europako herritarren mugikortasunari.
- ✓ Gure krisi demografikoaren aldagaia txertatzea, itunak Batasuneko arlo handien zahartzeak eta despopulazioak sortzen duten benetako arazoa konpontzen lagun diezagun.

- ✓ Hazkunde eta aurrerapen komuna eta partekatua garatzea Europar Batasunaren eta migrazio-fenomenoaren jatorrizko herrialdeen artean, eta bereziki Afrikako herrialdeen artean.
- ✓ Europako Batasunari planteatzen zaion erronka demografikori eta migrazioaren erronkari helduko dion Europako estrategia baten diseinua sustatzea, jaiotza-tasa sustatzeko neurriak txertatuz eta Europako migrazio-politika baten garapena bultzatuz, giza printzipio eta baloreen arabera aurrera eginez.

Europako Batasunaren Subiranotasun Estrategikorako Elikadura Politika, Nekazaritza eta Arrantza.

- ✓ Elikaduraren erresilentziarako Batasunaren estrategia osatzea 'baseritik mahaira' printzipioan oinarrituta, estrategia horretan Arrantza eta Akuikultura integratzeko eta xedea izan dadin 'baseritik eta itsasotik mahaira' leloa. Produktuen jatorrizko trazabilitatea eta etiketatzea hobetzea, ekoizleek eta arrantzaleek balio-katean duten posizioa hobetzeko eta kontsumitzaileen eskubideak indartzeko.
- ✓ Etiketei buruzko Europako arau berrietarako negoziaketa-prozesua burutzea. Gardentasunak eta legediak bat eginik eragotzi egin behar dute jasangarriak ez diren ekoizpenak gure merkatura iristea, edo haragia edo arraina ez diren produktuak halakotzat saltzea.
- ✓ Elikagaien ekoizpenaren sektorearen digitalizazioa bultzatzea. Gainera, proteinak ekoizteko iturri alternatiboak integratzea eta etorkizun handiko sektore berrien garapena, hala nola itsasoan algak landatzea.
- ✓ Arrantza Politika Bateratuaren berrikuntza bultzatzea, haren oinarrizko zutabe gisa jasangarritasun soziala, ingurumenaren jasangarritasuna eta jasangarritasun ekonomikoari eutsiz, eskuragarri dauden txosten zientifiko onenetan oinarrituta. betiere.
- ✓ Ontzidia berritzen laguntzea, jasangarriagoa, garbiagoa, seguruagoa eta erosoagoa izan dadin bertako langileentzat, eta Europako arrantza sektore estrategiko gisa irmoki babestea, ez bakarrik gure elikadura-subiranotasunari laguntzeko, baita legez kanpoko arrantzaren aurka borrokatzeko ere, gure estandarrak mundu osora zabaltzeko eta arrantzako hitzarmenak sinatuta dituzten hirugarren herrialdeetako tokiko sektoreekin lankidetzan aritzeko ere.
- ✓ Batasuneko agintarien arteko harremanetan hizkera berri bat sustatzea, bereziki Europako Batzordearen baitan eta arrantza-sektorearen baitan, elkarrizketak, txosten zientifiko onenek eta iraunkortasun hirukoitzaren irizpideak itsas ekosistemak babesteko, birsortzeko eta erresilienteagoak egiteko proposamenak bidera ditzaten.

EUSKADIREN PARTE HARTZE ERAGINKORRA EUROPAREN ETORKIZUNEAN

Euskadik eta euskal gizarteak europazaletasun sakona erakutsi izan dute beti, bai eta Europa eraikitzen laguntzeko bokazio aktiboa ere. Nazio gisa dugun borondatea da proiektu honetan parte hartzea, benetako gobernantza-eredu bat abian jarritz, non, Estatuez gain, Europako eta Euskal Herriko nazioak ere sartuko diren, Europa erabat legitimatu eta demokratiko bat eraikiz, non Euskal Herriak bere burua aitortua, errespetatua eta ordezkatur sentituko duen modu oso eta eraginkorrean. Maila anitzeko gobernantza-eredu berri bat, non erakunde-maila guztiek parte hartze aktiboa izango baitute eta hurbiltasuna, ezagutza, koordinazioa eta lankidetzaren bermatuko baititu Europako esparruan erabakitzeko eta gauzatze-prozesuen eraginkortasuna indartzeko, azken finean Europako Batasunaren legitimitatea indartzeko.

Euskadik lanean jarraitu nahi du kultura-aniztasuna eta inklusioa, bizi-kalitatea eta ongizatea sustatuko dituen Europa eraikitzen laguntzera begira. Giza Eskubide Unibertsalak eta bizikidetzaren baketsua defendatuko dituen Batasuna nahi dugu, Giza Garapen Iraunkorra bultzatzeko.

Kogobernantza.

Espainiako gobernuak Europako Batasunaren Presidentetzaren ardura bere gain hartuko dituela, aukera paregabea planteatzen da bide horretan jauzi kualitatibo bat emateko, subsidiarioritasun-printzipioan sakonduz. Ekintzen bidez egiaztatzea ahal izango dira Espainiako Gobernuak kogobernantzaz hitz egiteko erabili ohi dituen hitzak. Hala, Euskadik modu erreal eta eraginkorrean parte hartu ahal izan behar du Presidentetza-aldiko lan-egitasmoa prestatzen, bai eta Kontseilu Informalak eta bertan egingo diren ekitaldiak antolatzen eta horietan parte hartzen ere. Hori da Espainiako Estatuaren errealitate anitza, askotarikoa eta deszentralizatua islatzeko modu egokia.

Aldi berean erreklamatzeko dugu Euskadik eta bere erakundeek Europako Batasuneko Kontseiluaren eraketan parte hartze eraginkorra eta osoa izatea, bai eta, oro har, Europako Batasuneko erakundeetan presentzia izatea ere, gure erakundeei aitortzen zaizkien eskumenen arabera.

Era berean, eskualdeen arteko eta estatuen arteko lankidetzaren eta elkarlana bultzatu behar da Batasunaren barruan, makro-erregioak sortuz. Horrek esan nahi du naturaltasuna eman behar zaiela estatuz gaindiko eremuei, eta onartu behar dela Batasunak bideratu behar duen logika federalarekin bat datorren gobernantza parte-hartzaileago bati egiten dioten ekarpena. Orain arteko esperientziaren ondorioz, esperientzia horiek batez ere Erdialdeko Europan, Europako iparraldeko herrialdeetan eta Europako ekialdean garatu dira, eta horrek Europako lurralde osoa desorekatu du. Arazo hori areagotu egin da Europa ekialdeko estatu berriak sartzean, Erresuma Batutik irtetean eta Ukrainako egungo egoeran.

Ildo horretan, lehentasunezkoztat jotzen da Europako Kontseiluak Batzordeari agintzea Makro-erregio Atlantiko bat sortzea, Europako lankidetzeta-metodoarekin eremu atlantikoaren erronka nagusiei heldu ahal izateko. Premiazkoenak dira, zalantzarik gabe, energia- eta garraio-interkonektioak (batez ere trenbidekoak), lehiakortasuna eta digitalizazioa, klima-aldaketa, ozeanoen mantentzea eta arrantza iraunkorra.

Aniztasuna

Era berean, bat egiten dugu erabat Europako Batasunaren goiburu den Aniztasunaren Batua ('«Unity in Diversity») leloarekin, 2000. urtean lehen aldiz erabilia. Baina horrek berarekin dakar hitz horietan jasotzen den mezua praktikara eramatea, jarduera eta ekintza zehatzen bidez.

Parlamentuak hizkuntza gutxituen inguruan egin zuen txostenean jasotzen diren printzipioak azken hamar urteotan aplikatzeari buruz egin den eta berrikitan argitaratu den azterlanaren arabera, Europako erakundeek Europan ematen den aniztasunaren adierazgarritzat hartzen dituzte, baina ondore sinbolikoetarako besterik ez. Hala ere, gaitasunekin, enpleguarekin, prestakuntzarekin eta elkartruke harremanekin zerikusia duten programa guztietatik kanpo uzten dituzte, hizkuntza-diskriminazioa eraginez hizkuntza horietan mintzatzen diren eta ikasten duten pertsona horiei, hizkuntza horiek tokian tokiko hizkuntza ofizialak eta irakas-hizkuntzak izan arren. Oinarritzko Eskubideen Europako Gutunaren 21. artikuluan beren beregi debekatzen den diskriminazioa da hori.

Espainiako gobernua Presidentetza bere gain hartuko duela, aukera du orain politika hori behin betiko desagerrarazteko. Hala eskatzen dute Batasunaren balioek, Europako Parlamentuan gehiengo zabal batetik hartu diren erabakiek eta Euskara, Katalana eta Galegoa bezalako hizkuntza ofizial bihurtzen dituzten estatu kideetan indarrean dauden legediek.

Errealitate horrek ulertezin egiten du Batasuneko erakundeek hizkuntza horiek beren hizkuntza-lankidetzeta, -elkartruke eta -laguntzarako plataformetan integratzeari muzin egin izana, eta harrigarri gertatzen da, aldiz, Batasuneko kide ez diren herrialdeetako hizkuntzak plataforma berberetan integratuta egotea.

Ildo horretan, Presidentetza horrek bultzatu behar du Estatuan diren gaztelaniaz besteko hizkuntza ofizialek, euskarak, katalanak eta galizierak, Presidentetzaren beraren lanetan eta, oro har, Europako Erkidegoko erakundeetan presentzia izatea eta erabiliak izan daitezela, ofizializatzeko prozesu bat abiaraziz.

Era berean, lehenbailehen konpondu behar da EAEko, Kataluniako, Valentziako, Balearretako edo Galiziako hezkuntza-sistemetakoa ikasleek egun jasaten duten legez kanpoko diskriminazioa, eta berehala integratu behar dira hizkuntza horiek elkartrukearako, hizkuntza-laguntzarako, laguntza akademikoetarako (Europass) edo Batasunak enpleguarekin eta gaitasunekin lotuta aurreikusten dituen plataformetan.

Azkenik, sakoneko konponbidea erreklamatzeko jarraituko dugu Pirinioen alde banatan Unibertsitatean sartzeko orduan ematen diren ezberdintasunak konpontzeko eta, azken finean, ikasleriaren mugikortasunari egun planteatzen zaizkion oztopoak ezabatzeko. Helburua da Iparraldeko ikasleriari bermatzea unibertsitateko ibilbide akademikoa EAEn eta/edo NFKn jarraitzeko aukera.